



# TXIKITO!

2025eko martxoa 231. zenbakia



## DIMENTSIO BERRI BATERANTZ

# AURKIBIDEA

<b>TXISTEAK</b> .....	<b>3</b>	<b>DENBORAPASAK</b> .....	<b>11</b>
<b>IKASLEEKIN</b> .....	<b>4-5</b>	<b>LEHIAKETA</b> .....	<b>13</b>
<b>BERRIKETAN</b>		<b>ZER IRAKURRI</b>	
<b>IKASTETXEETAKO</b> .....	<b>6-7</b>	<b>BITXIKERIAK</b> .....	<b>14</b>
<b>BERRIAK</b>		<b>IPUINA</b> .....	<b>15</b>
<b>ARATOSTEAK</b> .....	<b>8-9</b>	<b>ZU BAI MARGOLARI</b> ...	<b>16</b>
<b>GURE NAGUSIEKIN</b> ....	<b>10</b>		
<b>BERBETAN</b>			

 **eta kitto!**  
euskara elkarteak

**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!”  
Euskara Elkarteak  
Urkizu, 11  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio-  
kontseilua**  
Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Ikusentzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Maketazioa**  
Ana Aizpurua

**Azaleko argazkia**  
Ekhi Belar

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96





- Ramon, bihar hilko naizela jakingo bazenu, zer esango zenidake gaur?
- Mila euro utziko dizkidazu eta bihar itzuliko dizkizut?



- Jaimito, esan didate oso azkarra zarela matematikan. Ea, zenbat da 55 bider 239?
- 129, andereño!!!
- Baina Jaimito, ez zara hurbildu ere egin!
- Badakit, baina andereño, ez esan ez naizela azkarra izan...



- Patxi baratzean zituen marrubiak simaurrarekin ongarritzen zegoela lagun batek galdetzen dio:
- Patxi, zertan ari zara?
  - Ba hemen, marrubiei kaka botatzen...
  - A, ze naska! Eta zergatik ez dituzu natarekin probatzen?

Gizon bat medikuarengana doa eta esaten dio:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik!
- Hori ez da posible! Bota ezazu bat oraintxe bertan.
- PPPPPRRRR!!!!

Medikuak usainarekin erdi zorabiatuta esaten dio:

- Hau oso larria da! Ebakuntza bat egin behar dizugu!!!
- Ipurdian?
- Ez, gizon, ez, sudurrean!!!





## Espazioaz harago

Zerura begira jarri gara Arrateko Andra Mari eskolako ikasleekin eta espazioa, unibertsoa, izarrak, planetak, astronautak eta, zergatik ez, estralurtarrak izan ditugu mintzagai. Eta nolako ezagutza erakutsi duten gainera! Ez dakigu nagusitan espaziora joateko aukera izango duten, baina ziur gaude Manal Fenassii, Khadija Amir, Ines Bousbaanoam eta Imran Aktbach bikain moldatuko liratekeela bertan. Noski, euretako bakoitza planeta batera joango litzateke, beraien gustokoenera (bideoa ikusiz gero jakingo duzue zein den euretako bakoitzaren planeta gustokoena).

Eta estralurtarren batekin topo egingo balute, zer? Bakoitzak modu batean imajinatzen ditu estralurtarrak (existituko balira, noski), eta eurekin modu ezberdinetan jardungo lukete. Harreman ona sortuko zen, laukote jatorra baitugu honakoa.

**BIDEOA  
YOUTUBEN**



# DI-DA batean

- 1- Zer nahiago duzu: munduari buelta eman ala espaziora bidaiatu?
- 2- Edozein planetatan bizi ahal izango bazina, zein aukeratuko zenuke?
- 3- Planeta bat aurkituko bazenu, zein izen jarriko zenioke?
- 4- Ilargira joango bazina, zein hiru gauza eramango zenituzke?
- 5- Astronauta izango bazina, zein misiotan parte-hartzea gustatuko litzaizuke?

Elkarrizketa dibertigarri hau ...eta kitto! Euskara Elkartearen Tik Tok kontuan duzue!



## MANAL FENASSI

- 1- Munduari buelta eman.
- 2- Marte.
- 3- ED22.
- 4- Ura, janaria eta amatxo.
- 5- Martera joatea eta han bitzta sortzea.



## IMRAN AKTBACH

- 1- Espaziora bidaiatu.
- 2- Jupiter.
- 3- Magma.
- 4- Janaria, ura eta nire familia.
- 5- Saturnoren eraztunetara joatea.



## INES BOUSBAANOAM

- 1- Munduari buelta eman.
- 2- Lurra.
- 3- Jeptuno.
- 4- Janaria, arropa eta kaskoa.
- 5- Planeta baten gainean esertzea.



## KHADIJA AMIR

- 1- Munduari buelta eman
- 2- Lurra.
- 3- Lurjupter.
- 4- Ura, janaria eta arropa.
- 5- Ikurrina jarriko nuke.



## AMAÑA

Berritzegunearen proposamenari helduz, Amañako eskolan liztor asiaticoen kontrako ekimenarekin bat egin dugu. Liztor asiaticoen bertako liztor eta erleak akabatzen dituzte eta horrek gure ekosistema arrisku larrian jartzen du. Hori dela eta, eskolan zehar lau tranpa ipini ditugu (patioan, lorategian, baratzean eta eskolaren ondoko zuhaitz batean), tranpa hauek ura, legamia eta azukrearekin bete ditugu jaki gisa eta martxoan hasita eta maiatzerarte, bi astetik behin tranpak hustu eta berriro ipiniko ditugu. Harrapatutako liztor asiaticoen kopurua zenbatuko dugu eta datuak Eibarko Unibertsitateak jaso eta tratatuko ditu.



## ITURBURU

4. mailakoak, gelaka, Andretxeara oinez jaitsi ginen “Itsaspeko bihotzak” erakusketa ikustera. Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak sortu du ekimen hau eta diotenez, aspaldi kezkatu daude haur zein gazte literaturan ageri diren neska eta mutilen estereotipoekin. Horregatik, areto honek, irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain, genero berdintasuna eta hezkidetzaz lantzea du helburu, euskarazko haur literatura oinarri hartuta. Oso ondo pasatzeaz gain, lehen aipaturiko neska eta mutilen estereotipoak, zoritxarrez oso barneratuta ditugula ondorioztatu genuen, eta horrelako ekimen gehiago behar ditugula ere bai.

## LA SALLE

Pasatu dira aratosteak eta Garizuman sartuta gaude dagoeneko. Gure superheroiak Eibartik zehar kalejiran pasa ziren, giroa alaituz eta gaizkile guztiak uxatuz. Primeran pasa genuen benetan!!! Gainera eskolako txikiak museo zoragarri bat prestatu digute patio txikian, beraiek ikasitako eta egindako artelan zoragarriak erakusteko. Louvrekoa baino hobea, ez izan dudarik!!! 5. mailakoak Gasteiz aldean ibili zaizkigu eta 6. mailakoak berriz, Pasaian, toki, jarduera eta emozio berriak ezagutu. Aste Santuaren aurretik Proyde-Proega astea ospatzen ari gara, ikastetxearekin batera lan egiten duen GKerekin, solidario izatea zer den hausnartzeko.





## ALDATZE

Aldatzen ere, otsailaren 27an, Eguen Zuri eguna ospatu genuen poz eta ilusioz jantzita. Ez genuen galdu nahi izan ikasleen kalejira eta hantxe bertaratu ginen Zetak musika taldearen Aralarko Dama abestiak inspiratuta. Jantzi txuria soinean, zapi gorria buruan eta maskara aurrean, dantzari eta kantari aritu ginen Mitoaroa kontzertuko abestirik enblematikoena irudikatuz.



## SAN ANDRES

Martxoaren 13an, San Andres Eskolako 2.mailako ikasleak Pasai Donibanen dagoen PIRATEN ETXERA bi eguneko irteeera egin zuten. Ostegun goizean, Eibarren autobusa hartu eta Pasaiara abiatu ziren. Heltzean, bertako piratak ezagutu, bazkaldu eta, ondoren, Pasaiako kaira jaitsi ginen eta txalupa batean itsasoratu ginen. Gauean, afaldu ostean, mozorratu eta festa!!! Altxorraren Bila jolasean ere aritu ginen eta, ostiralean bazkaldu eta gero autobusean Eibarrera. Primera ibili ginen!!!

## ARRATEKO ANDRA MARI

4. mailako ikasleek “Itsaspeko bihotzak” saio literarioa izan zuten Andretxean. Agenda 30eko Ekordezkariak Portaleara joan ziren Eibarko diagnostikoan parte hartzera. Honekin lotuta, ikasleekin jostailu eta hondakinen inguruko ekintza berezi bat egin genuen eskolan. Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko eguna larunbata izan zenez, aurreko egunean ospatu genuen. Silueta moreak prestatu genituen eta patioa apaindu genuen. LHko 1 eta 2. zikloko ikasleek martxoaren 17tik 28ra igeriketa ikastaroa izan dute eta apirila ere ekintzaz beterik datorkigu!



## URKIZU

Oraingoan, lehen mailako ikasleek, Basondora egin zuten txangoa martxoaren 14an. Eguraldia ez genuen lagun izan, baina, botak eta zira jantzita, alde batetik bestera ibili ginen animaliak ikusten. Askok dakizuen bezala, inguruko basanialia nagusiak aurki ditzazkegu Basondon: orkatzak, basurdeak, oreinak, azkonarra, basakatua... baita harrapariak, hontzak eta hegazti migratzaile mota ezberdinak ere. Gaixorik edo zaurituta aurkitzen dituzten animaliak sendatzen ere aritzen dira eta ikusteko aukera izan genuen. Ikasleek asko disfrutatu zuten eta ia-ia batenbat animalia artean gelditu zitzaigun!









**Javi Charola aitxita eta Malen Mardaras biloba elkartu ditugu oraingoan La Salle ikastetxean. Gustura jardun dute kontu-kontari. Hemen duzue gure galderei eman dizkioten erantzunak.**

**Non jaio zineten?**

**Malen:** Donostian.

**Javi:** Eibarren.

**Zenbat urte dituzue?**

**Malen:** 8.

**Javi:** 67.

**Zer izan nahi duzu/zenuen nagusitan?**

**Malen:** Futbolaria.

**Javi:** Enpresaria.

**Zer egiten duzu asteburuan?**

**Malen:** Multikirolekoak eta futbol partidak.

**Javi:** Lagunekin afariren bat eta Ipuruara joan Eibar ikustera.

**Zer ikusten duzu telebistan?**

**Malen:** Goazen eta Makusi.

**Javi:** Teleberri, serieak eta Eibarren partiduak.

**Zein musika gustatzen zaizu?**

**Malen:** Zetak.

**Javi:** Rock-a, klasikoa eta folk-a.

**Abesti bat?**

**Malen:** "Aralarko dama" (Zetak).

**Javi:** "Angie" (Rolling S.) eta Lau teilatu (Itoiz).

**Zein duzu jatekorik gustukoena?**

**Malen:** Esparrago berdeak.

**Javi:** Antxoak.

**Zer ez zenuke sekula jango?**

**Malen:** Espinakak.

**Javi:** Pepinoa.

**Dirutza irabazi duzu bat-**

**batean. Zer da egingo zenukeen lehenengo gauza?**

**Malen:** Euro Disneyra joan.

**Javi:** Alabei eman eta bidaia bat egin.

**Zein superbotere eduki nahiko zenuke?**

**Malen:** Hegan egitea.

**Javi:** Onddoak non dauden jakitea.

**Malen, nolakoa da aitxita?**

**Malen:** Oso majoa, eta asko maite dut.

**Javi, nolakoa da Malen?**

**Javi:** Oso zintzoa.

**Zerk ematen dizu beldurra?**

**Malen:** Armiamek.

**Javi:** Gaixotasunak.

**Zein herrialde bisitatuko zenuke?**

**Malen:** Argentina.

**Javi:** Canada.

**Zer kenduko zenuke egungo gizartetik?**

**Malen:** Bideojokoak.

**Javi:** Gerrak.

**Zer gosaltzen duzu?**

**Malen:** Esnea, madalenak eta gailetak.

**Javi:** Kafesnea eta tostada olioarekin.

**Denboraren makina bazenu, zein sasotara joango zinateke?**

**Biak:** Historiaurrera.

**Urtaro politena?**

**Malen:** Uda, Marbellara joaten naizelako eta iaz futbolearen eman nuelako izena.

**Javi:** Udazkena, argazkiak ateratzeko kolore zoragarriak eskaintzen dizkigulako.

**Zer hiru gauza eramango zenituzke irla desertu batera?**

**Malen:** Ura, erropa eta botikak.


**Javi:** Ura, janaria eta liburuak.

**Zein animalia izan nahiko zenuke?**


**Malen:** Perikitoa, nire birramamaren Periko perikitoa bezala.

**Javi:** Arranoa edo belatza, han goitik dena ikusteko.

# LABIRINTOA



# EZBERDINTASUNAK





# HIEROGLIFIKOAK



Zer gurutzatuko dute anai arteberak?



Zer jaten dute ardiak?

Zer daukazu pentgatzevo?




Zer animalia eratzun duzu?



# LEHIAKETA

## 7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MAIATZAK** 7 baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



## AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa ADAY, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburua eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako!  
**ZORIONAK!**

**Munstroen ipuina** 6 urtetik aurrera

Zeinek esan du pastelak egitea ez dela arriskutsua? Larunbat hartan, azokan erosten ari ginela, harri-harri eginda utzi gintuen zerbait deskubritu genuen. Izan ere, han, saltokien artean, sekretu bat zegoen ezkutaturik. Sekretu bat... munstrokeriazkoa!

**Miraren mendekua** 8 urtetik aurrera

Noraino eraman gaitzake mendeku goseak? Zilegizkoa da minari minez erantzutea? Gaizki-ulertu bat tarteko, liburu honetako protagonista (irakurlea bera) abentura misterioitsu bezain arriskutsu batean murgilduko da. Aitona, basoa, enigmak eta troll bat; gai izango al da erabaki zuzenak hartu eta iraganeko minak sendatuz etorkizun berriak sortzeko?

**Yucataneko egunak** 10 urtetik aurrera

Martinek eta haren gurasoek bidaia bat egingo dute Cancunera, misterio bat argitzeko. Misterioaren muinean Madrilgo kodexa dago, maien aspaldi-aspaldiko liburu bat. Bidaian topatuko dituzten pertsonen bidez eta bisitatuko dituzten lekuen bidez, Mexikoren eta hango kulturaren hainbat alderdi lili-ragarri ezagutuko dituzte. Eta pertsona eta leku horiek berehalakoan ezabatu ez den arrasto bat utziko dute haiengan.

**BITXIKERIAK****Gizakiok aztarnak ditugu mihian**

Gure hatz-markak bezala, gure mihiaren aztarnak ere bakarrak dira!



**11 urteko haur batek ustekabeen asmatu zituen izotz-poloak** 1905ean, Frank Epperson gazteak ura eta soda-hautsa aire zabalean utzi zituen gau osoan, edalontzian egurrezko irabiagailu bat zuela. Nahasketa izoztu zela jakin zuenean, "Epsicle" jaio zen, lehenengo izotz-poloa.

**Askatasunaren Estatua itsasargi bat izan zen hasieran**

New Yorkeko Askatasunaren Estatua itsasargi izan zen 16 urtez. Bere argi-zuzia ia 40 kilometrorra ikus zitekeen.



# Azalaren koloreak ez du garrantzirik

1957. urtean futbola ez zen famatua, baina gure protagonistaren herrian bai, pixkat famatua zen. Ai ene!! Gure protagonista aurkeztea ahaztu zait, bere izena Berton da. Bere jolas gustokoena futbola da.

12 urte besterik ez zituenean talde batean apuntatzea nahi zuen, baina bere azal koloreagatik ez zuten onartzen. Bertonek ez zuen amore ematen eta egun batean urrezko aukera bat eman zioten. Aurretik izan zituen zailtasunengatik aukera ondo aprobetxatzea erabaki zuen.

Bai!!! Taldean jokatzeko aukera eman zioten, 17 urte zituenean.

Hainbat partidutan titularra izan zen bere taldearekin, oso ona zenez (golak sartzen zituen, asistentziak ematen zituen...) beste taldeetako entrenatzaileek haien taldera eraman nahi zuten. Baina talde famatu batekin jokatzeko zegoela, talde hartako fanatikoak hitz arrazistak esaten hasi ziren. Hori dela-eta, Berton deprimitu egin zen. Baina eskerrak bere lagunak hau esan zion: “Ez deprimitu, lagun, beraiek gauza bakarra nahi dute, zu futbolean hain ona ez izatea, eta horregatik zure azal koloreagatik hitz arrazistak esaten dizkizute. Baina zu oso trebea zara futbolean”. Hitz hauek besarkada handi batekin etorri ziren.

Azkenean, konfidantza berreskuratu zuen eta gol asko egin zituen. Gero, beste talde batera joan zen eta han futbolean jokatzeari utzi zion. Bera izan zen azal iluna zuen lehenengo pertsona futbolera jokatzeko eta beregatik orain azal kolore ezberdinetako futbolariak daude. 10 urte gehiago bete zituenean, futbolean jokatzeari utzi zion eta entrenatzaile lanak egitea erabaki zuen. Bere txikitako taldea entrenatzen hasi zen. Eta horrela hainbat talde entrenatzen egon zen bizitza osoan. Bere eskutik futbolari famatuak ere pasa ziren.



**Yassine Arabat**



# ZU BAI MARGOLARI!

